

1. BALIO PROPOSAMENA / PROPUESTA DE VALOR

Gure enpresak lan edo hobbie bidez bidaiatzen duten pertsona guztien beharrak asetzen ditu. Zerbitzu azkarra eskaintzen dugu, erraz lortzeko modukoa, aireportutik ahalik eta gertuen (aireportuaren barruan) eta ekonomikoki eskuragarria.

Bezeroak prest egongo dira gure zerbitzua erabiltzeko; izan ere, hegazkinekobidaiariak beti izango dute gogoan hasieratik, eta hegazkin konpainiako web orrialdeak berak eramango ditu bezeroak restbox aukeratzera. Aireportuaren barruan gaudenez, abantaila dugu gure lehiakideekiko, bidaiariak, normalean, nahiago izaten baitute hurbil dagoen leku bat eta ahalik eta lasterren atseden hartzea. Gainera gure zerbitzua merkeagoa da aireportuetatik gertu dauden hotelak jendearen beharraz baliatzen dira prezioak igotzeko, eta horregatik gure zerbitzua aukerarik onena izango da.

. **PRODUKTUA**

Oinarrizko produktua: Kanpoko materiala eta barrukoa egurra izango da, ohea kalitateko koltxoia izango du. Hori frogatzeko profesional batzuk logeletan igaroko dute gaua. **Produktu handitua:** Produktuaren fidantza(Fidantza betebeharrak bat betetzen dela ziurtatzeko bermea da.) izango da. Gure zerbitzua hartzean, 30 euro utzi behar dira eta gure zerbitzua erabiltzen amaitzen duzunean guztia ondo badago 30 euro horiek bueltatuko ditugu baina zerbait apurtuta badago ez ditugu bueltatuko.

Produktu sinbolikoa: Gure marka, diseinua... da. Logo bat sortu, foileto batzuk egin ditugu... Diseinuak bezeroentzako arreta deitzen du, ematen baitu nahiko gela erosoak direla.

PREZIOA Prezioa lehiakideena baino baxuagoa izango da. horrela gure aukera hartuko dute errenta baxuagoa duten pertsonak.

BANAKETA Produktua kontsumitzaileak jasotzeko leku eta gune egokian egoteari laguntzen du. Bi mota daude: Kanal zuzena eta kanal ez zuzena. **Kanal ez zuzena** erabiliko dugu. Kanal luzea: beste enpresa bat kontratatuko dugu logelak fabrikatzeko eta gero gure produktua kontsumituko dutenak egongo dira.

PROMOZIOA:Hasieran **salmenten promozioa** egingo dugu: Ofertak, adibidez, lanagatik bidaiatzen dutenei deskontua edo 5 logela hartzean %20 deskontua.

Ere **harreman publikoa:** langile bat izango dugu aeroportutik jendeari gure restbox gomendatuz.

